

**21/2023 LEGEA, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. (EHAA 247 zk. 2023/12/29)**

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea aldatzea.**

1.– Aldatzen da lege horren 2.1 artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«1.– Lege honen ondorioetarako, honako ezaugarri hauek dituzten ekimen sozialeko erakundeek osatzen dute Euskadiko hirugarren sektore soziala: **egoitza edo ordezkari-tza Euskal Autonomia Erkidegoan dute eta jarduera EAEn gauzatzen dute**; helburu nagusia daukate sustatzea, esku-hartze sozialeko jardueren bitartez, inklusio soziala, garapenerako lankidetzatza eta zaurtasun, bazterketa, ezberdintasun, babesgabatasun, desgaitasun edo mendetasun egoeran dauden pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateen eskubideen erabilera efektiboa».

2.– Aldatu egiten da lege horren 2.3 artikulua b) letra, eta honela idatzita geldituko da:

«b) 3. artikuluan aurreikusitako eskakizunetakoren bat betetzen ez duten erakundeak, baldin eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek, zuzenean edo zeharka, gehiengoz partaidetuta badaude, erakunde horien helburu sozialak lortzeko eratuak izan badira, **egoitza edo ordezkari-tza EAEn badute eta jardueraren parte nagusia Erkidegoan garatzen badute** eta jarduera hori irabazi-asmorik gabekoa bada. Sozietate merkantilak izanez gero, irabazi-asmorik gabekotzat hartuko da estatutuetan aurreikusita edukitzea lortutako etekinak erakundearen helburu diren jardueretan berrinbertitu beharra. Bereziki, arlo honetan sartuko dira enplegu-zentro bereziak eta gizarteratze- eta laneratze-enpresak, baldin eta dagozkien errolda ofizialetan behar bezala inskribatuta badaude eta paragrafo honetan jasotako eskakizunak betetzen badituzte, beren arautegi espezifikokan aurreikusita daudenez gainera».